

### Biodibertsitate-hitzarmena perlesiak jota

**R**io de Janeiroko Gailurraren ondorio distiratsuetako bat, Biodibertsitate-hitzarmena hain justu, noraezean dabil, Hitzarmenaren 133 sinatzaileek 1994ko abenduaren hasieran Bahametan Hitzarmenaren lehen bilera egin ostean. Munduko gobernu gehienek Hitzarmena sinatu eta 30 hilabete pasatu

ondoren, dozena bat inguru estatuk baino ez du antolatu bere biodibertsitatea babesteko plan nazionala. Horixe zen, hain zuzen ere, Hitzarmenaren puntu garrantzitsuenetako bat. Bestetik, Bahametakoko bileraren helburu nagusia munduko espezieak babesteko neurriak ezartzea zen. Dena dela, baso eta oihanen arazoak ez dira eztabaidatu eta hori zentzugabekeria handia da, horietan munduko bizidun-espezieen erdia bizi delako. Are gehiago, Nassaun 12 egun bileran egon eta gero, Hitzarmenaren idaz-

karitza non kokatu ezin izan dute adostu. Hiru hautagai zeuden: Geneva (behin-behineko egoitza), Madril eta Nairobi, baina itxuraz ez ziren biltzarkiddeen gustukoak. Bestetik, genetikoki aldatutako organismoak seguru maineratu eta garraiatzeko prozedura berriak ezartzea urtebetez atzeratu dute. Bileran erabakitako puntu bat, kontserbazioari buruzko aholku zientifikoa eta teknikoa emango duen azpibatzerdea ezartzea da. Hala ere, datorren irailean egingo du azpibatzerde horrek lehen bilera.

Erabaki "handietako" bat, urtero abenduaren 29a Biodibertsitatearen Nazioarteko Eguna izendatzea da.

Erakunde kontserbazionistetakoko ordezkariak haserre bizi utzi zuten bilera, basoen arazoa ukitu ez zelako batez ere. Basoen arazoa aurtu egingo den NBEaren Garapen Jasangarrirako Batzordearen (GJB) bileran tratatuko omen da. Batzordea Rioko Gailurraren ondorioa da, baina bere erabakiek ez dute Hitzarmena legalki behartzen.

Egun, GJB NBEaren Baso Politika berria ezartzeko lanetan ari da. Dena dela, Malaysiak eta Kanadak dute lan horren koordinazioa eta kontserbazionisten arabera, bi estatu horiek basogintza-politika basatia erabiltzen dute. Beraz, kontserbazionisten beldurra batzordeak basogintza biodibertsitatearen aurrean jartzea da.

Rioko Gailurretik hona, 40.000-80.000 hektarea baso desagertu omen dira, begiz jotzen denez.

### Indonesiaren "oparia"

**1**993an Indonesiako gobernuak DDTa erabiltzea debekatu zuen. Alabaina etxerako nahi ez duena, auzokoari eman dio. Izan ere, 100 tona DDT opari egin dizkio Nepali. Afera honetan gainera, munduko osasunaz ardura nagusia duen Osasunerako Mundu Erakundeak DDTaren garraioa ordainduko du. Nepal-darren osasuna zaintzeko modu txit berezia benetan!

DDTa malaria kutsatzen duen anofele moskitoa kontrolatzeko erabiliko bada ere, esaera zaharrrak diona aplikatu daiteke kasu honetan: *gaurko ogia, biharko gosea*. DDTa animalia eta pertsonontzat toxikoa da, gorputzean metatzen da eta ingurugiroan hogeit bat urte irauten du degradatu gabe. (Panosen berria.)



Erakunde kontserbazionistetakoko ordezkariak haserre bizi daude, basoen arazoa ukitu ez zelako batez ere.

Basoen arazoa aurtu egingo den NBEaren Garapen Jasangarrirako Batzordearen (GJB) bileran tratatuko omen da.



### San Paulo garbituz

**F**rantziaren menpeko San Paulo irla Ozeano Barean dago eta zortzi kilometro karratuko azalera du. Jatorrizko fauna eta landaredia berreskuratzeko



Hanka zurbileko gabaia.

plan bat aplikatuko zaio otsailetik aurrera. Biologoek irlako fauna eta itsas hegaztiak arriskutan jartzen ari diren ugaztun arrotzak akabatzeko argi berdea jaso dute.

San Paulo eta aldameneko Amsterdam irlak XVI. mendean aurkitu zituzten. XVIII. mendean 3.000 km iparrekialdera dagoen Reunion irlako arrantzale frantziarrek kolonizatu zuten San Paulo. Arrantzaleek basoak bota, landareak erre eta hegaztiak eta fokak ehizatu zituzten. Beren untzietan arratoiak, polizoi moduan, iritsi ziren eta untxiak okela freskoa segurtatzeko eraman zituzten. Biologoek ustetan, garai hartako espezieen erdia desagertu da biztanle berrien lanari esker.

Untziek San Pauloko landaredia guztiz aldatu dute. Higadura handia eragin dute gainera.

Salbatu nahi diren itsas hegaztien artean Macgillivray ekaitz-txoria eta hanka zurbileko gabaia daude. Macgillivray ekaitz-txoria endemikoa da San Paulon eta 100-150 bikotek beren habiak irlatik 100 bat me-

trora dagoen harriztar batean egiten dituzte. Biologoak beldur dira, arratoiak ur-kanal estua igeriz gurutzatu eta harriztarreraino iritsiko ote diren (hegazti-kolonia osoa desagertarazi egingo dutelarik).

Hanka zurbileko gabaia bestetik, San Paulon du Ozeano Bareko habialeku bakarra.

Arratoiak eta untxiak akabatzeko kanpaina otsailean hasiko da. Irlan dauden espezieen inbentarioa egingo da lehen-lehenik. Urtebete geroago, 10 tona pastila anti-koagulante sakabanatuko dira airetik irla osoan zehar. Behar izanez gero beste 5 tona pozoi barreriatuko dira hilabete geroago.

Zeelanda Berrian egin diren azterketek aditzera eman dutenez, bertako espezieei ez diete pastilek kalterik eragingo. Itsasoan eroriko direnak, hegaztien jatena diren arrainak jan baino lehen desegingo dira. Gainera, arratoi eta untxiak beren zuloetan hilko direnez, lantzean behin sarraskiak jaten dituzten itsas hegaztiak ez dira pozoitze-ko arriskutan izango.

Planteatutako prozedurak egoki funtzionatuko balu, prozedura bera

beste toki batzuetan era aplikatuko da.

## Marrazo zuria

Steven Spielberg-en *Marrazoa (Jaws)* filme ezagunak marrazo zuri handiaren nortasunaren alderdi bakar bat baino ez zuen erakutsi; erasotzaile odoltsuarena, alegia. Hegoafrikako Museoko Leonard Compagno biologoaren ustetan irudi hori ez da egokia. Bere aburuz, orain arteko ikerketak marrazoaren ehiza-jokaeraz eta gizakiekiko harremanez bai-zik ez dira arduratu eta

lotutakoa. Harrapakari trebea izanik, bere barrutia mugatzeak ez da maio abantailarik. Animalia nomada da, bestalde. Gainera, marrazo zuria batzuetan talde-lana egin ez ehitzen du, antza.

Pinguinoekin oso harreman kuriozoso dauka. Izan ere, hegazti hauek bere sparringak direla dirudite. Marrazo zuria fokak jaten ditu normalean, pinguinorik ez. Hala ere, askotan pinguinoei erasotzen die, baina ez ditu hiltzen. Hortzekin heldu eta gero joaten uzten die. Beraz, ehiza-teknika hobetzeko entrenamendu modukoa izan daitezke pinguinoei eginiko eraso horiek.

Compagnoren ustetan marrazo zuria buruz



hori txanponaren alde bat baino ez da.

1980ko hamarkadaren erdialdetik hona Compagnok egin dituen azterketek marrazo zuri handiaren beste irudi bat darakusate. Marrazo zuria ez da ehizari bakartia, animalia soziala baizik, eta harreman konplexuak ditu bere espeziekideekin eta beste animaliekin. Ez da barruti bati atxikitako animalia eta hori defendatzeari

Marrazo zuria ez da ehizari bakartia, animalia soziala baizik, eta harreman konplexuak ditu bere espeziekideekin eta beste animaliekin.

ikasteko asko dago oraindik. Dena dela, erasotzaile odoltsu, anker eta basatiaren irudia aldatzen hastea komeni dela azpimarratzen du.

